

MUTILA ETA TXORIA

IRAKURRI

Mutila eta txoria egurrezko makila baten gainean eserita daude. Txoria mutilaren ezkerrean eserita dago eta haserre dagoela dirudi. Bien artean pakete bat krispeta daukate. Mutilak hanka bat zintzilik dauka.



IDATZI E EGIA BADA ETA G GEZURRA BADA.

- ☐ Txoria makilaren erdian dago
- ☐ Txoria mutilaren ezkerrean dago.
- ☐ Mutila makilaren puntan dago.
- ☐ Mutila makilaren erdian dago.
- ☐ Makilaren erdian paketea dago.
- ☐ Mutilak bi hankak zintzilik ditu.

OSATU ESALDI HAU:

Mutila eta egurrezko baten
..... eserita daude.

IRAKURRI GALDERAK ETA PENTSATU ERANTZUNAK.

- 1.-Nortzuk daude makila gainean?
- 2.-Non dago krispeta paketea?
- 3.-Makila egurrezkoa ala burdinazkoa da?
- 4.-Nola du hanka mutilak?
- 5.- Txoria pozik dago?
- 6.-Txoria mutilaren eskuinean dago?

JARRI ZENBAKI EGOKIA GALDERA BAKOITZARI DAGOKION ERANTZUNEAN

- ☐ Mutilak hanka zintzilik du.
- ☐ Ez, txoria mutilaren ezker aldean dago
- ☐ Krispeta paketea bien artean dago.
- ☐ Ez, txoria haserre dagoela dirudi.
- ☐ Makila egurrezkoa da.
- ☐ Mutila eta txoria daude makila gainean.

OSATU ESALDI HAU:

Txoria ezker aldean eserita eta
..... dagoela dirudi.